

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2866

61/2026 EBAZPENA, ekainaren 15koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetza-hitzarmena, Migrazioen eta Bizikidetzaren "Ikuspegi" katedra eratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den lankidetza-hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetza-hitzarmena, Migrazioen eta Bizikidetzaren "Ikuspegi" katedra eratzeko. Lankidetza-hitzarmena hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 15a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN EKAINAREN 15EKO 61/2026 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKOA; HONEN BIDEZ ERATZEN DA MIGRAZIOEN ETA BIZIKIDETZAREN «IKUSPEGI» KATEDRA

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, José Ramón Bengoetxea Caballero jauna, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean, UPV/EHU) errektore nagusia, urtarilaren 20ko 1/2025 Dekretuaren bidez izendatua, UPV/EHUREN izenean eta hura ordezkatzuz parte hartzen duena (IFK: Q-4818001B), eta bere karguagatik esleitutako eskumenak erabiliz.

Eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburu Nerea Melgosa Vega andreak ordezkatzuta, ekainaren 23ko 29/2024 Dekretuaren arabera izendatua eta egintza honetarako baimendua, Gobernu Kontseiluak 2026ko apirilaren 29an egindako bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

Bi alderdiek lankidetzak hitzarmen hau sinatzeko eta bertan jasotako betebeharrak beren gain hartzeko gaitasun juridiko nahikoa aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.— UPV/EHU zuzenbide publikoko entitatea da, eta irakaskuntzan, ikerketan, garapen zientifiko eta teknologikoan eta ezagutzaren dibulgazioan dihardu.

Sektore eta diziplina anitzeko erakundea da, irakaskuntzako, ikerketako, garapen zientifiko eta teknologikoko eta jakintzaren hedapeneko jarduerak egiten dituen, eta bere funtsezko helburuetako bat du bere eragin-eremuan garapen ekonomiko iraunkorra bultzatzea. Halaber, euskal gizartearen aurrerapen ekonomikoari eta gizarte-ongizateari laguntzen dio, mugako ikerketaren emaitzak transferituz eta ezagutza zabalduz.

Haren helburuetakoak dira, besteak beste, garapen ekonomiko jasangarria bultzatzea bere eragin-eremuan eta euskal gizartearen ongizateari laguntzea, mugako ikerketaren emaitzak transferituz eta erakundearen barruan sortutako ezagutza zabalduz. Gainera, UPV/EHUK erakunde eta enprekin lankidetzan dihardu hainbat proiektutan, eta horretarako ditu, besteak beste, bere irakasle eta ikertzaileen kidegoa, eta ikasleak ere bai.

Bigarrena.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren helburua da, Aniztasuneko, Bizikidetzako eta Erronka Demografikoko Zuzendaritzaren bitartez, eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren bidez (aurrerantzean, 320/2024 Dekretua) zuzendaritza horri esleitutako eskumenen esparruan, kulturartekotasuna eta aniztasunean (generokoa, adinekoa, jatorrikoa, kulturala, sexuala eta erlijiozkoa) oinarritutako bizikidetzak bultzatzea, arraza, kultura, erlijioa, jatorria edo orientazio sexuala bezalako faktoreei erreparatuta, eta aintzat hartuz, orobat, diskriminazioko eta diskriminazio anizkoitzeko egoerak prebenitu eta landu beharra, eta halaber, istilu eta gorrotozko delituen prebentzioa eta haiei aurre egiteko ekintza.

Historiako euskal gizarterik anitzena den honetan, eta gero eta aniztasun handiagoko tse-tuinguruan, funtsezko helburua da, betiere trantsizio sozial eta demografikoari lotua, lortutako gizarte-kohesioko eta bizikidetzako mailak bermatzea.

Era berean, 320/2024 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari atxikitako Aniztasun, Bizikidetzeta eta Belau-naldi arteko Elkartasuneko Zuzendaritzari dagokio, besteak beste, adin, jatorri, kultura, erlijio edo sexu-orientazio desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzeta eta elkartasuna sustatzea, bai eta bizikidetzaren arloan sortzen ari diren erronkei erantzuteko eta aniztasunaren kudeaketa positiboa sustatzeko jarduketa-programak diseinatzea, ezartzea eta koordinatzea ere. Bestalde, dekretu horren 17. artikulua honako eskumen hauek esleitzen dizkio, besteak beste, Sail horren bera-ren barneko Etorkinak Hartzeko eta Integratzeko Zuzendaritzari: etorkinen harrerari, erabateko inklusioari eta parte-hartze sozialari buruzko politika integrala eta zeharkakoa planifikatzea, koor-dinatzea eta ebaluatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko migrazio-fenomenoaren bilakaeraren jarraipena eta azterketa egitea; eta beste administrazio publiko batzuekin koordinatzeko mekanis-moak eta tresnak proposatzea, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen esparruan.

Hirugarrena.— Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autono-mia Estatutuak jasotzen duenez, Autonomia Erkidegoak lankidetzeta- eta kooperazio-mekanismoak ezarri ahal izango ditu bere eskumenak baliatuz.

Ildo beretik, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 33.1 artikulua-k aurreikuspen hori indartzen du, xedatzen baitu Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lan-kidetzeta hitzarmenak formalizatu ahal izango dituela beste administrazio publiko batzuekin, betiere alde bakoitzak bere eskumen eremuaren barruan jarduten badu eta Gobernu Kontseiluaren alde-z aurreko baimena edo onarpena badu.

Era berean, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, berariaz aitortzen dio Unibertsitateari ahalmena, bere autonomia erabiliz, bere baitan edo beste unibertsitate, organismo publiko eta pribatu batzuekin (Euskal Autonomia Erkidegokoak zein kanpokoak) egoki iritzitako kontratuak eta hitzarmenak ezarri ahal izateko, Legeak berak jasotzen dituen helburuak lortze aldera. Ildo horretan, UPV/EHUreren Estatutuek, 5. artikulua bidez, hitzarmenak egiteko berezko ahalak ematen dizkiote UPV/EHUri, autonomia-araubidean jardunez.

Era berean, UPV/EHUK sortutako nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeen funtziona-menduari buruzko oinarritzko araudia onartzen duen UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakiaren 1.2. artikulua aukera ematen du UPV/EHUKo nortasun juridikorik gabeko egitura edo erakundeak sortzeko hitzarmenak egiteko, eta 2/2023 Lege Organikoaren 46.2.g) artikulua arabera, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluari dagokio, organo gorena baita, halakoak onartzea.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpenak, errektorea-ren eskumenak eskuordetzeari eta haren Gobernu Taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteari buruzkoak, Unibertsitatearen Estatutuen 178. eta 180. artikuluetan (17/2011 Dekretua) xedatutako eskumenen arabera, 183., 187., 191., 197. eta 198. artikuluetan aurreikusitakoari dagokionez, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoari dagokionez ere, 3.6 artikuluan ezartzen du, eskumenak errektoreordeei, idazkari nagusiari eta kudeatzaileari ordeztuari dagokionez, ondoko eskumen hauek ere baliatuko direla: a) Bere arloko hitzarmenak sinatzea, arautegi espezifikoetan eta Gobernu Kontseiluaren Funtzionamenduko Erregelamenduan aurreikusitakoa aintzat hartuta. Hitzarmen

horiek sinatu direla jakinarazi beharko zaio Idazkaritza Nagusiari, Hitzarmenen Erregistroan inskriba ditzan, eta, hala badagokio, ukitutako errektoreordeei ere bai.

Laugarrena.— UPV/EHUK, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Ikuspegi-Immigrazioaren Behatokia sortzea bultzatu zuen 2003an, migrazio-fluxuen eragina ezagutzeko, aztertzeke eta baloratzeko baliagarria izango zen onura publikoko tresna bat eraikitzeke asmoz.

Erakunde horrek, hasieran, EAEko migrazio-fluxuen monitorizazioan zentratzen zuen bere lana, baina azken bi hamarkadetan bilakaera esanguratsua izan du, bere jarduera-eremuak zabaldu baititu, lan-ildo berriak erantsita. Zehazki, 2019aren amaieratik, Ikuspegi garatzen ari da aniztasunaren azterketan zentratzen den ildo bat.

Eraldaketa horrek agerian utzi du Behatokiari formatu instituzional berri bat eman beharra, haren helburu estrategikoetara hobeto egokituko dena eta haren eragin akademikoa eta prestakuntza-koa indartzen lagunduko duena. Beraz, haren lanari egonkortasun akademikoa eta instituzionala emango dion unibertsitate-egitura sendotu nahi da, haren azterketa-ildoak esparru zabalago eta formalizatuago batean integratuz.

Ondorioz, bi erakundeak bat datoz lankidetzaz-hitzarmen egonkor bat ezartzearen komenigarritasunean, aipatutako eremuetan dituzten helburuak betetzen eta garatzen laguntzeko, eta ekimen berriak bultzatzea proposatzen dute, jarduera-programa jarraitu baten esparruan, Migrazioei eta Bizikidetzari buruzko Ikuspegi Katedra eratuz, ondoko klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz, laguntza eta sostengua sendotzea, eta horretarako eratzen dute Migrazioen eta Bizikidetzaren Ikuspegi Katedra. Helburua da migrazioaren, bizikidetzaren eta aniztasunaren fenomenoaren ikerketa, hausnarketa, azterketa eta hedapena sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) arreta berezia eskainiz.

Zehazkiago, migrazio-fenomenoari eta aniztasunari buruzko ikerketarako eta analisirako jarduerak garatzera bideratuta dago, EAEen fenomeno horien ikusgarritasuna sustatzera, eta kulturarteko ikuspegia duten politika publikoak aztertzeraz eta finkatzera ere bai.

Beraz, lan horri unibertsitate-egitura zabalagoa eta egonkorragoa eman nahi zaio:

Jakinduria handiko ezagutza eskainiko diona Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, migrazioaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko politika publikoen orientaziorako.

Partaidetzak eta konexio-sareak ezarriko dituen Europako erakundeekin, ikerketako beste kluster batzuekin eta ezagutza sortzeko sareekin, lan eta politika publikoak Europako eta nazioarteko testuinguruan konektatzeko eta kokatzeko.

Sail horrekin batera, eragile publiko eta pribatuekin ezagutza partekatua zabaltzeko, hausnartzeko eta sortzeko ekintzak garatuko dituenaz, eta

Unibertsitateko mundu akademikotik adituen ezagutza ateratzea ahalbidetuko duena, gizarte-eragileak eta gizarte zibila ahaldundzeko.

Bigarrena.— Aurrera eraman beharreko jarduerak.

Hitzarmen honen esparruan aurrera eraman beharreko jarduerak hauek dira:

Migrazioen, aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko ikerketa, azterketa eta gizarte-proiektzioak jarduerak sustatzea eta garatzea, fenomeno horiek eta euskal gizartean duten eragina hobeto ulertzeko.

Harreman partekaturako eta ezagutza sortzeko esparruak ezartzea Europako eta nazioarteko ikerketa-sareekin.

Lankidetzarako eta trukerako bideak ezartzea antzeko lan-ildoak partekatzen dituzten erakunde akademiko, sozial eta instituzionalekin, barne direla ikerketa-sareak, behatoki espezializatuak eta immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketarekin eta ikerketarekin konprometitutako nazioarteko erakundeak.

Hainbat publiko eta kolektibori zuzendutako prestakuntza, sentsibilizazio sozial eta dibulgazio zientifikoko ekintzak bultzatzea, Katedrak sortutako ezagutza helarazteko eta immigrazioari eta bizikidetzari buruzko hausnarketa kritikoa eta elkarrizketa bultzatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailarekiko lankidetzaz erraztea Katedraren lan-xedearekin lotutako ekimen eta jardueretan, arlo akademikotik eta teknikotik laguntzeko datuetan oinarritutako politika publikoak diseinatzen eta estrategiak garatzen.

Katedraren jarduera-programa Jarraipen Batzordearen erabakien arabera garatuko da, eta Katedraren ardura izango da.

Hirugarrena.— Jardueren plangintza.

Adierazitako ildoak garatzeko, bosgarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeak urteko Jarduketa Plana onartuko du. Plan horretan, helburuak, jarduerak, erantzukizunak eta aldeek ezarritako konpromiso ekonomikoak zehaztuko dira.

Jardueren urteko planean aurreikusi gabeko beste edozein jarduera gauzatu ahal izango da, baldin eta Jarraipen Batzordeak dagozkion jarduketa-plan bereziak onartzen baditu, dagokion izaipideari jarraituz.

Laugarrena.— Aldeen konpromisoak.

UPV/EHUK konpromiso hauek hartzen ditu:

Katedraren zuzendaritzaren Urteko Jarduketa Plana eratzeke proposamena prestatzea eta aurkeztea, jarraipen batzordeak onetsi dezan.

Ikerketa-, dibulgazio-, sentsibilizazio- eta transferentzia-jarduerak sustatzea eta aurrera eramatea Katedraren esparruan, jarduketan urteko programan aurreikusitako jarduketan planarekin bat etorritik.

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari justifikatzea Katedra honi egindako ekarpena, urte bakoitzeko abendua amaitu baino lehen, urteko jarduketa-planean jasotako jarduerak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria entregatuz. Memoria horretan ekarpen horrekin egindako jardueren aipamena jasoko da, bai eta proiektuaren kostuaren justifikazioa ere, fakturen eta gainerako egiaztagirien kopiaekin batera.

Erakundeek Jarraipen Batzordean dituzten ordezkariak informatzea eta gonbidatzea Katedrak berak antolatzen dituen sozializazio, sentsibilizazio eta zabalkunde ekitaldi guztietara.

Katedrak sortzen dituen argitalpenen eta materialen ale digitalak helaraztea erakundeei formatu digitalean.

Bere aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak konpromiso hauek hartzen ditu:

Katedraren jarduketen segimenduan eta hitzarmen honen garapenean parte hartzea.

Haien sustapenean eta sostenguan parte hartzea, dagokion organoak onartutako zenbatekoa- rekin.

Katedrak antolatutako sentsibilizazio eta zabalkunde jardueri laguntza ematea.

Katedraren finantzaketari eta ordainketari erreparatzea, ezartzen diren baldintzen arabera.

Bosgarrena.– Egoitza.

UPV/EHUren Migrazioen eta Bizikidetzaren Ikuspegi Katedraren egoitza Bizkaiko Campusean egongo da, eta gela eta areto egokiak utziko zaizkio, behar bezala funtziona dezan.

Seigarrena.– Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen xede diren jardueren koordinazioa eta jarraipena gauzatuko dira, hitzar- mena sinatu ondoren, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluko aurreikuspenen arabera, horretarako jarraipen-batzorde bat eratuz. Batzorde horretako kideak izango dira UPV/EHUko Garapen Zientifiko Sozialeko eta Trans- ferentziako Errektoreordetzak izendatutako bi ordezkari, UPV/EHUrekin Katedrako zuzendariari eskatzen zaion lan-harreman bera izatea, eta Katedra sostengatzen duten erakundeetan erantzuz- kizun handia izatea, eta Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak izendatutako beste bi pertsona. Batzorde horren eginkizunak izango dira jarraibide orokorrak gain- begiratu eta onartzea eta, orobat, behar diren aldaketak gainbegiratu eta onartzea ere.

Oro har, Jarraipen Batzordeak urtean behin bildu behar du, ohiko komunikazio-bidearen bidez deituta, bilera-eguna baino astebete lehenago. Ezohiko bilera ere egin ahal izango da, Jarraipen Batzordeko edozein kidek deituta, ohiko komunikazio-bidearen bidez eta behar besteko aurrera- penarekin. Bilkuretarako deialdian gai-zerrenda erantsi beharko da.

Erabakiak aho batez hartuko dira.

Jarraipen Batzordeak eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

Katedraren zuzendaritzak aurkeztutako urteko jarduketa-planaren proposamena onestea.

Urteko jarduketa-planean jasotako jarduerak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria onartzea.

Katedraren jardueren eta Batzordeak hartutako erabakien jarraipena egitea.

Lankidetzatza-hitzarmen honen ondoriozko interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea.

Hitzarmena betetzeko edo garatzeko helburua duten beste edozein zeregin, aldean interesekin bat etorritik.

Zazpigarrena.– Katedraren zuzendaritza.

UPV/EHUK izendatuko du Katedraren zuzendaritza bere gain hartuko duen pertsona. Katedraren zuzendaria jardunean dagoen UPV/EHUKo irakasle bat izango da, doktorea, unibertsitatearekin lan kontratu egonkorra eta denbora osoaz duena. UPV/EHUKo errektoreak izendatuko du pertsona hori, katedra garatzeko aurkeztuko duen proiektua aztertu ondoren, kontuak izanik Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren iritzia.

Katedraren zuzendariaren oinarrizko egitekoak honako hauek izango dira:

Katedraren jarduerak planifikatzea eta koordinatzea.

Bileretan, Katedraren jardueren berri ematea Jarraipen Batzordeari.

Zortzigarrena.– Finantzaketa.

Katedraren ohiko jarduerak ordainduko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean migrazioaren eta bizikidetzaren arloan eskumena duen sailaren aurrekontu orokorren kargura. Dagokion ekarpena lauhun mila eurokoa (400.000 euro) izango da urtean, hitzarmena indarrean dagoen lau urteetan, hau da, 1.600.000 euro guztira. Horretarako, hitzarmen honen gehieneko kostu ekonomikoari aurre egiteko behar den kredituaz hornitu da 1001103000 1.31230.24499 2026/000945 aurrekontu-aplikazioa.

Aurrekoa eragotzi gabe, UPV/EHUK, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailarekin bat etorritik, hirugarren pertsonak edo erakundeak onartu ahal izango ditu Katedraren jardueren finantzaketan eta garapenean eta proiektuaren garapenean parte hartzeko, hitzarmen honetan ezarritako arauak eta irizpideak urratu gabe.

Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz sor daitezkeen kudeaketa eta transakzio ekonomikoak errazteko, UPV/EHUKo Ikerketaren Emaizak Transferitzeko Bulegoaren edo Euskoiker Unibertsitate-Enpresa Fundazioaren parte-hartzea baliatu ahal izango du UPV/EHUK. Horretarako, dagokion izapide egokia bete beharko da.

Bederatzigarrena.– Ordainketa eta justifikazioa.

Katedra finantzatuko da honen aurreko klausulan aipatutako ekarpen ekonomikoekin, eta Katedra sostengatu ahal izateko UPV/EHUK egingo dituen ekarpen ez-diruzkoekin; gainera, aurreikusitako jardueren esparruan lor litezkeen dirulaguntzak, laguntzak eta beste finantza-iturri batzuk ere baliatu ahal izango dira.

Ekarpen ekonomikoak urte bakoitzeko bi ordainketatan egingo dira, zehaztapen hauen arabera:

2026. urtea: lehen ordainketa, urteko ekarpenaren ehuneko hirurogeita hamarrekota (% 70), hitzarmen hau sinatzen den egunean egingo da. Bigarren ordainketa, gainerako ehuneko hogeita hamarra (% 30), 2026ko azken hiruhilekoan egingo da, Jarraipen Batzordeak onartu ondoren UPV/EHUK prestatutako urteko jarduketa planean jaso ziren jarduerak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria.

Ondoko urteetan: lehenengo ordainketa, urteko ekarpenaren ehuneko hirurogeita hamarrekota (% 70), urteko lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen egingo da, UPV/EHUK eman behar duen urteko jarduketa plana Jarraipen Batzordean onartu ondoren. Bigarren ordainketa, gainerako ehuneko hogeita hamarra (% 30), urteko azken hiruhilekoan egingo da, UPV/EHUK aurkeztu behar duen urteko jarduketa planean jasotako jarduerak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria Jarraipen Batzordean onartu ondoren.

Hamargarrena.— Publizitatea eta hedapena.

Katedrak, UPV/EHUko nortasun juridikorik gabeko erakundea den aldetik, Unibertsitatearen nortasun korporatiboa erabili beharko du unibertsitate-jardueraren komunikazio orotan eta sortutako ezagutzaren zabalkunde eta hedapen orotan, eta UPV/EHUren nortasun korporatiboaren ikusgarritasuna bermatuko du, eskuliburuan aurreikusitako moduan. Ekoizpen zientifikoari dagokionez, aitortu eta agerrarazi beharko da lan horietan parte hartu duten ikertzaile guztien parte-hartzea, bai eta legez dagokion erakundeko kide direla ere. Katedrak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bere irudi korporatiboari buruz ezartzen dituen jarraibideak ere errespetatuko ditu.

Katedrak egiten dituen ekitaldi eta jarduera guztietan, UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren logotipoak agertuko dira, antzeko tamaina eta ikusgarritasunarekin, Katedra sustatzen duten erakunde gisa, ukatu gabe entitate edo erakunde laguntzaileek erabiltzen dituzten beste logo batzuk ere agertzea.

Hamaikagarrena.— Jabetza intelektualaren eskubideak.

Katedraren jardueren esparruan sortzen diren jabetza intelektualaren eskubideak UPV/EHUri eta Eusko Jaurlaritzari dagozkie batera, ehuneko berrogeita hamarreko partaidetzan (% 50) alde bakoitzarentzat.

Arestian esandakoa hala izanik, erakunde horien arteko lankidetzatik edozein emaitza edo ekoizkin sortuz gero, haren titulartasuna ehuneko berdinetan partekatuko da, diseinuan, baliabideen ekarpenean eta gauzatzean izandako parte-hartze maila edozein dela ere.

Hamabigarrena.— Datuen babesa.

Hitzarmen honek ez dakar berekin sinatzen duten alderdien artean datu pertsonalak lagatzea. Berariaz adostuta geratzen da alderdiek hitzarmen honen xede den proiektu edo programarekin loturik jakinarazten dituzten datu eta informazio guztia datu bakanduak izango direla; hau da, pertsona fisikoa identifikatzea ahalbidetzen ez duten datuak izango dira eta, ondorioz, datuen babeserako araudiaren aplikaziotik kanpo egongo direnak. Zehazki, entitate sinatzaileek lankidetzaren berri izateko datu kuantitatiboak, zenbakiak edota portzentajeak erabiliko dituzte.

Nolanahi ere, hitzarmenaren edo bere garapenaren ondorioz datu pertsonalen tratamendua eskatuko balitz, alderdiek konpromisoa hartzen dute arau hauek bete daitezzen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokienez (horren bidez indargabetu zen 95/45/EE Zuzentaraua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); beteko da, orobat, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa; eta arestiko arauak garatzen dituzten legezko arautegiak, datuen babesaren arloan, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eta kontrolerako autoritate eskudunen jarraibideak ere beteko dira.

Alderdi bakoitza izango da Akordio hau kudeatzeko eta Akordiotik erator daitezkeen zerbitzuak emateko tratatzen dituen datu pertsonalen erantzule. Zentzu horretan, alderdiek adierazten dute beteko dituztela, beraiek izanik erantzule bakar eta erabatekoak, datu pertsonalak babesteko araudia aplikatuz eska dakizkiekeen betebeharrak guztiak.

Hitzarmena sinatzen duten alderdiek ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta beste edozein alderdik ez baditu aurreko betebeharrak betetzen. Bere gain hartutako betebeharrak urratuz gero, horiek egin dituen erakundeak izango du egindako arau-hausteen erantzukizuna, eta

beste erakundeak ardurarik gabe mantenduko ditu hirugarrenek eskatu ahal dituzten era guztietako erreklamazioetatik, agintari eta organismo eskudunak barne.

Hamahirugarrena.— Etika.

Lankidetza-hitzarmenaren garapena Euskal Herriko Unibertsitatearen Etika Kodera egokituko da. Ondorioz, ez da egingo giza eskubideen aurkako ekintzetan zuzenean parte hartzea dakarren edo edozein indarkeria mota eragiten duen lankidetza-jarduerarik.

Hamalagarrena.— Lankidetza-hitzarmenaren iraupena.

Lankidetza-hitzarmen hau alderdiek sinatu ondoren jarriko da indarrean, Gobernu Kontseiluak baimena eman ondoren, eta 4 urteko indarraldia izango du.

Hala ere, aurreko atalean aurreikusitako epea baino lehenagoko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute urteko luzapen bat edo gehiago egitea, gehienez ere beste lau urtez, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. h) artikuluan azaldutakoaren arabera, betiere kreditu egokia eta nahikoa badago eta hartutako konpromisoak behar bezala betetzen badira.

Hamabosgarrena.— Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Hitzarmen honen edukia aldatu ahal izango da, sinatzaileek aho batez hala erabakitzen badute. Hitzarmenaren aldaketa oro gehigarri bidez formalizatu beharko da, lege ezarritako baldintzen arabera eta 40/2015 Legearen 50. artikuluan aurreikusitako aldez aurreko baimenarekin.

Hamaseigarrena.— Hitzarmena azkendu eta ebaztea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da helburuan sartzen diren jarduerak bete direlako, edo hitzarmena suntsitzeko arrazoi hauetako bat gertatzen bada:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea. Ez-betetzearatik azkenduko dela ebatziko da, ez baldin bada aurkezten edo onartzen Jarraipen Batzordean urteko jarduketa planean jasotako jarduerak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria.

Horrelako kasuetan, edozein alde jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen aldeari errekerimendu bat, epe jakin batean bete ditzan bete gabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren egikaritzearen jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei komunikatuko zaie.

Errekerimendu edo eskaeran adierazitako epea igarota ez-betetzeak jarraitzen badu, hura bidali zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoi bat dagoela, eta, beraz, suntsitutzat joko da hitzarmena.

Hitzarmena ez-betetzearatik suntsiarazten bada, urteko jarduketa-planetik gauzatu ez den zatiari edo eragindako kalte-galeren kalte-ordain gisa bete ez den zatiari dagokion zenbateko proportzionala itzuliko da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala.

Lankidetza-hitzarmen hau suntsiarazteak ez du eraginik izango gauzatzen den unean abian diren jardueretan.

Hamazazpigarrena.– Araubide juridikoa eta jurisdikzio aplikagarria.

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluan adierazitakoaren arabera. Bertan jasotako xedapenek arautuko dute hitzarmena eta, horietan aurreikusita ez dauden gauzetan, eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko, aipatutako 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoari jarraituko zaio.

Hitzarmenaren ondorioei, interpretazioari, aldaketari edo ebazpenari buruz alderdien artean sortzen diren zalantzak edo eztabaidak Jarraipen Batzordean adiskidetasunez ebazten saiatuko dira. Konponbide lagunkoirik lortu ezin bada eta ezinbestez auzi judizialera jo behar bada, bi alderdiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen IV. tituluaren arabera.

Eta ados daudela erakusteko eta hitzartu den oro behar bezala jasota gera dadin, alderdiek dokumentu honen hiru ale SINATU DITUZTE, sinadura elektronikoaren datan.

Egoitza elektronikoa, 2026ko maiatzaren 27a.

UPV/EHUko errektorea,
JOSE RAMON BENGOTXEA.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

KONFIDENTZIALITASUN KONPROMISOA

..... jauna/andrea, NAN:
..... duenak eta(a)ri atxikita dagoenak,
dokumentu honen bidez,

JAKINARAZTEN DU

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, konpromisoa hartzen duela transakzioak baimenduta dagoen kudeaketa-helburuetarako soilik erabiltzeko eta ezagutzen dituen datuei buruzko sekretu profesionala gordetzeko, eta fitxategi informatikoetara egiten diren sarrera guztien arduradun izango dela, bere pasahitza pertsonalaren eta emandako sarrera-kodearen bidez.

Adierazitako betebeharrak betetzen ez badira, baimenik gabeko erabiltzaile batek informazioa eskuratzen badu, agindutako eginkizunerako beharrezkoak ez diren prozesuak edo transakzioak esleitzen badira edota sartzeko identifikazio pertsonala zaintzen edo sekretuan gordetzen ez bada, administrazio-erantzukizunak eskatuko direla, zehazki Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoak, bai eta beste edozein motatako erantzukizunak ere, zigor-arlokoak barne.

..... 20....(e)koaren(e)(a)n

II. ERANSKINA

MIGRAZIOEN ETA BIZIKIDETZAREN IKUSPEGI KATEDRA

LAN-PLANA. 2026

Sarrera.

Dokumentu honetan, Migrazioen eta Bizikidetzaren Ikuspegi Katedrak immigrazioaren, giza eskubideen, diskriminazioaren eta bizikidetzaren arloan 2026rako duen lan-plana jasotzen da. Migrazioen eta Bizikidetzaren Ikuspegi Katedra sortu zen jarraipena emateko 2003. urtearen amaieratik, Eusko Jaurlaritzaren eta EHUren arteko lankidetzaz hitzarmen baten ondorioz, abian zegoen Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiaren proiektuari. Sortu zenetik, Ikuspegik lan sendoa egin du Euskadiko migrazioei eta aniztasunari lotutako politika publikoen azterketan, dibulgazioan eta laguntzan. Urteetan zehar, Ikuspegi erreferente akademiko eta sozial bihurtu da, ezagutza enpiriko zorrotza sortu baitu, erabakiak hartzeko datu garrantzitsuak zabaltzen baititu eta immigrazioari eta kulturen arteko bizikidetzari buruzko eztabaida publikoan lagundu izan baitu.

Hala ere, egungo testuinguruak erronka berriak ditu, eta orain arte egindako lana zabaltzea eta sendotzea eskatzen dute. Horretarako, 2025ean abian jarri zen Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia zena Katedra gisa eratzeko prozesua, Behatokiaren lanari egonkortasun akademikoa eta instituzionala emango dion unibertsitate-egitura sortuz, haren analisi-ildoak egitura zabalago eta formalizatuago batean integratzeko. Azken batean, Katedraren sorrerak aukera ematen du Ikuspegiren jardueren jasangarritasuna bermatzeko epe ertain eta luzera, plataforma akademiko sendoa eta ezagun baten bidez, eta proiektu estrategiko gisa integratzen du, Katedraren barruan, haren nortasuna, ibilbidea eta aitorpen soziala zainduz eta, aldi berean, multzoari gaitasun handiagoa ematen zaio ekintzarako, ikusgarritasunerako eta proiektzio unibertsitariorako.

Migrazioei eta Bizikidetzari buruzko Ikuspegi Katedraren 2026ko lan plana irizpide eta helburu orokor horietan oinarrituta egituratzen da, eta helburu eta zeregin zehatzak jasotzen dituzten jarduera batzuen bidez artikulatzen dira. Zehazki, aurtengo lana hainbat jardueratan egituratzen da, esaterako, atal teknikoetan, adibidez datu-basearen kudeaketa, dokumentazio zerbitzua edo webgunearen eta sare sozialen mantentze-lana; beste atal batzuk, berriz, gehiago zentratzen dira gaiari buruzko ikerketan eta dibulgazioan, adibidez, ikerketa-proiektuak egitea, materialak argitaratzea edo biltzar zientifikoetan edo dibulgazio-hitzaldietan parte hartzea.

Ikuspegi Katedrak immigrazioaren eta bizikidetzaren arloan egiten dituen jarduerari dagokionez, duela urte batzuk egiten ari garen ekintzekin jarraituko dugu 2026an, esaterako EAEko biztanleek atzeritar jatorriko biztanleekiko dituzten pertzepzio eta jarrerari buruzko Barometroa 2026, Herriartasunari, Immigrazioari eta Asiloari buruzko 2022-2025 Kulturarteko VI. Planaren 4.3.9.1 ekintzan jasotzen baita.

VI. Plan horri dagokionez, EAEOLren datu-basearekin lanean ari gara, herritar migratzaileek euskal osasun-sistamarako sarbidean dituzten desberdintasunak aztertu ahal izateko (4.3.5.1 ekintza). Aurreikusia dugu, orobat, etxebizitzaren arloko ikerketarekin hastera (4.3.6.1 ekintza), bigarren mailako iturrietatik datozen bigarren mailako datuen analisiaren bidez (Etxebizitza Beharrei eta Eskarari buruzko Inkesta eta Alokairu Erregimeneko Familiei zuzendutako Inkesta; etxebizitza babestua eskuratzeari buruzko datuak, etab.), hurbilketa kualitatiboa eginez hainbat eragilarekin (adituak, Etxebide, higiezin agentziak, atzeritar jatorriko pertsonak...).

Aldizkako argitalpenei dagokionez, hiruhileko lau Panoramikak mantenduko ditugu, baita berrikuntza bibliografikoen buletinak ere. Era berean, 2026an, immigrazioaren eta asiloaren arloko dokumentazio-zentroa handitzeko lanek aurrera jarraituko dute.

Bestalde, 2026an, estatistika interaktiboen eta adierazleen datuak eguneratuko dira, eta analisi-bloke berriak sortuko dira Tableau aplikazioaren bidez. Bloke horiek, alde batetik, iturri ofizialetako datu soziodemografikoak eskaintzen dituzte (EIN, Eustat, OAR, etab.) eta, bestetik, hainbat iturritatik datozen integrazio eta kohesio sozialeko adierazle batzuk (EPOE; Lanbide; Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa; Ikuspegi Barometroa; Eurobarometroa; CIS). Helburua da Euskadiko immigrazio-fenomenoari buruzko datu garrantzitsuenak zentralizatzea eta informazioa formatu intuitiboagoan eta bisualagoan eskaintzea, taulak eta grafikoak ad hoc lortzeko aukera emanez.

Hausnarketarako foro eta espazioetan parte hartzeari dagokionez, aurten jarraituko dugu parte hartzen Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroaren lantaldean, eta Comillas Unibertsitate Pontifikaleko Migrazioei buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutuko Errefuxiatu eta Migratzaile Behartuen Katedraren Aholku Batzordeko kide izaten ere. Gainera, beste ekimen batzuetan modu puntualagoan parte hartzea aurreikusten da (proiektuak eta txostenak kontrastatzea, gogoeta foroak, jardunaldi eta mintegietan parte hartzea, etab.).

Era berean, 2026ko urrian, Biltzen-ekin batera, duela 15 urte baino gehiago egiten ari diren urteko jardunaldiak antolatuko dira.

Azkenik, migrazio-gaiei buruzko prestakuntzaren eta ikerketaren arloko lankidetzarekin jarraituko da, beste erakunde eta instituzio publiko eta sozial batzuekin, azken urteotan elkartzeko eta hausnarketarako guneak sortu baititu.

Ikuspegi Katedrak giza eskubideen, diskriminazioaren eta bizikidetzaren arloan egiten dituen jardueri dagokionez, EPAD 2025 – Diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrera inkestaren emaitzak aurkeztuko dira. Galdeketa helburua da EAEko biztanleek aniztasunari eta haren adierazpenei buruz dituzten pertzepzioak eta jarrerak ezagutzea, bai eta hainbat arrazoiengatik izandako diskriminazioa neurtzea ere. Eta, aldi berean, 2026ko lehen seihilekoan zehar, azterketaren hurrengo edizioa jarriko da abian, galdetegiak eta landa-lana berrikusiz.

Bizikidetzaren arloko beste ikerketa bat Euskadiko biztanle musulmanen beharrei buruzko diagnostikoa da, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan. Txostena argitaratuko da Zabaldur #4 bildumaren barruan, horren helburua delarik aniztasunari buruzko hausnarketa soziologikoa eskaintzea, bere zentzurik zabalenean, analisia eta hausnarketa uztartuz.

Bestalde, 2026an diskriminazioari eta bizikidetzari buruzko datu estatistikoekin lan egiteko ildoaren barruan eskuartean ditugun ekintzekin jarraituko dugu. 2026an, webguneko diskriminazioari buruzko adierazleak eguneratzea eta etengabe elikatzea aurreikusten da, baita interesgarriak izan daitezkeen beste iturri batzuk ere. Gainera, erlijioen eta kultu-zentroen mapa interaktiboa eguneratzen jarraitzen da, datuen eta estatistiken atalean.

2026an, dibertsitatearen eta tratu berdintasunaren arloko dokumentazio-zentroa zabaltzen jarraitzea aurreikusten da, baita nobedade bibliografikoen newsletterrean sartzeko materialak prestatzen jarraitzea ere. Ikuspegiren dokumentazio-zentroa zerbitzuaren helburua da erregistro bibliografiko bat sortzea eta kudeatzea, kontsultak egiteko aukerarekin, jendeak dokumentuak kontsultatu ahal izan ditzan, bai paperean, bai euskarri informatikoan.

Azkenik, eta bi lan-ildo horietan zehar-lerro gisa, Sare sozialak eta gorrotozko diskurtsoak EAEn gaiari buruzko azterlan bat egingo da. Lan horren helburua da, besteak beste, sare sozialetan arrazismoa, islamofobia, lgtbi-fobia eta ijitoekiko bazterkeria astintzen dituzten gorrotozko diskurtsoak aztertzea. Proiektu pilotu bat egin nahi da, urteroko monitorizazioa inplementatzeko asmoz.

Gainera, zehar-lerro gisa, datuak eta ikerketaren emaitzak zabaltzen jarraitzen da, materialak (infografiak, datu nabarmenak, etab.) argitaratuz sare sozialetan, mailing bidez, eta Katedraren webgunea elikatuz.

Bestalde, datorren urtean prestakuntza-saio bat planteatuko zaio Katedrako lantaldeari –oraindik zehaztu gabe dagoena–, lantaldeak etengabeko birziklatzea eta prestakuntza izan dezan, immigrazioarekin eta bizikidetzarekin lotutako gaietan.

Azkenik, kongresu, mintegi eta hausnarketa-foroetan parte hartzea aurreikusten da, Ikuspegik immigrazioaren eta bizikidetzaren arloan egindako ikerketen emaitzak zabaltzeko, aurkikuntzak eta metodologiak beste aditu batzuekin kontrastatuz. 2026an, Ikuspegiko taldeak Espainiako Soziologia Federazioaren (FES) IX. Kongresuan parte hartuko du, Bilbon, 2026ko uztailan. Han, Ikuspegi Katedrak, immigrazioari eta bizikidetzari buruzko txostenak eta ikerketak hainbat forotan aurkezteaz gain, Migrazioen mahaia koordinatuko du.

2026ko lan-plana eta eginkizunak	
Ataza	Atazaren deskribapena
T.1	Jarduera: DATU-BASEA Helburuak: - Euskal Autonomia Erkidegoa helburu izan duten migrazio-mugimenduei, horien bilakaerari, atzeritar jatorriko pertsonen ezaugarriei eta Euskadiko bizikidetzari buruz dagoen bigarren mailako informazioa jasotzea, sistematizatzea eta aztertzea. - Euskadiko aniztasunarekiko diskriminazioa eta pertzepzioak eguneratzea eta aztertzea, web-orrian erantsitako adierazle-sistema interaktibo baten bidez. - Etorkinen kolektiboa EAEn integratzeko prozesua monitorizatzea. - Jarduera honen azken helburua da jendeari eskaintzea, aldizka, kalitatezko informazio estatistikoa, taula, grafiko eta txostenen bidez eta dokumentazio-zentroan kontsultatu daitezkeen datu-baseen bidez. Ataza zehatzak: T.1.1. Bigarren mailako iturrien erregistroa osatzea, eguneratzea eta zabaltzea. Migrazioa - 2026an bilduko da eta aztertuko da bigarren mailako informazio estatistikoa, erroldaren, bizileku-baimenen eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren inguruan, eta halaber, beste datu batzuen inguruan, esaterako, nazionalizazioei edo egoitza-aldaketen inguruan. Giza Eskubideak Diskriminazioa - 2026an diskriminazioari buruzko adierazleen panela eguneratuko da; panelak konbinatzen ditu, alde batetik, Garapen Jasangarrirako Helburuen barruan jada identifikatutako adierazleak, eta bestetik, euskal herritarrek diskriminazioaren eta jokabide diskriminatzaileen inguruan dituzten pertzepzio eta jarrerei buruzko barometroetatik abiatuta diseinatutako adierazleak (EPADE 2020, 2024, Neurtu 2021, 2022, 2023, 2024, Eurobarometroa). T.1.2. Informazioa hustea eta dagoen datu-basera iraultzea. EAEn erroldatutako pertsonen buruzko datuak bilduko dira, ondoren webguneko datu-basean iraultzeko. Erroldako informazioa biltzeko eta datuak prozesatzeko metodologia aldatu ondoren, Eustaten datu baseak lortzeko ahalegina egin da; hala ere, mikrodatuak lagatzeari uko egin zaionez, 2026an Eustaten zuzendaritzarekin harremanetan jarri nahi da, instituzio-mailan, irtenbide bat bilatzeko. Bitartean, EInk sarbide irekian ematen dituen datuak erabiltzen jarraituko da. T.1.3. Edukiak prestatzea Web-orrirako Taulak, grafikoak eta aurkezpenak prestatuko dira webgunerako, bai eta datu soziodemografikoak, ekonomikoak eta integrazioaren beste arlo batzuei dagozkienak ere, Tableau-ko formatu interaktibo batean. Bi informazio-multzo sortuko dira: batetik, iturri ofizialetako datu orokorrak (Errolda, Lanbide, EIN) eta, bestetik, inkestetako datuak, bai Ikuspegik berak egindakoak, bai beste erakunde batzuenak ere.

2026ko lan-plana eta eginkizunak	
Ataza	Atazaren deskribapena
T.1	T.1.4. Euskadiko erlijioen eta kultu-zentroen mapa eguneratzea. Euskadiko erlijioen eta kultu-zentroen mapa interaktiboa eguneratu nahi da. T.1.5. Estatistika-txosten pertsonalizatuak prestatzea. Estatistika-konsulta desberdinei erantzungo zaie, estatistika-txosten labur pertsonalizatuak eginez. Eskaerak batez ere erakundeen, elkarteen, ikasketen eta komunikabideen eremuetatik etorri ohi dira.
T.2	Jarduera: DOKUMENTAZIO-ZENTROA Helburuak: Jatorrian, Ikuspegiaren dokumentazio-zentroaren helburua zen erregistro bibliografiko bat sortzea eta kudeatzea, kontsultak egiteko aukera eskaintzeko jendeari, bai paperezko euskarrian, bai euskarri informatikoan, eta halaber, migrazioen, bizikidetzaren, giza eskubideen eta diskriminazioaren arloetako ikertzaileek bertan lan egin ahal izan zezaten. 2026rako, hauek dira helburuak: - Zentroari dokumentu-iturriak ematen jarraitzea: monografiak, aldizkariak eta laneko dokumentuak, batez ere. - Nahi duen jendeari funtsak kontsultatzeko aukera ematea. - Ataza zehatzak: T.2.1. Funts bibliografikoak eskuratzea. Material bibliografikoa eskuratzea, bai informatiboa, bai akademikoa, estatukoa nahiz nazioartekoa, dokumentu-funtsak osatzeko. T.2.2. Espainiako aldizkari zientifikoetarako harpidetza. Aldizkari zientifiko nazioaletarako harpidetza mantentzen da. T.2.3. Berrien aldizkariak. Immigrazioaren eta bizikidetzaren arloko berri bibliografikoen 4 buletin argitaratzea aurreikusten da 2026rako. T.2.4. Web orriko edukiak eguneratzea, egituraren aldaketa barne. Edukiak aldian-aldian eguneratuko dira, jasotako berrikuntzen arabera. T.2.5. Dokumentazioari buruzko informazio-konsulta pertsonalizatuen eskaerari erantzutea. T.2.6. Estatu-mailako beste dokumentazio-zentro batzuekin immigrazio gaiei buruzko informazio- eta koordinazio-bideak abian jartzea. Antzeko gaien edo horiei lotutako gaien inguruko dokumentazioa biltzen duten hainbat zentrokekin harremanak izaten dira.
T.3	Jarduera: IKUSPEGI OINARRIZKO IKERKETA Helburuak: - Gizartean garrantzi berezia duten alderdiei buruzko informazioa bilatzea, baldin eta informaziorik ez badago edo dagoena partziala edo desegokia bada. Laburbilduz, immigrazioaren, bizikidetzaren, diskriminazioaren eta aniztasunaren alderdi garrantzitsuak ikertzea, lan hori hartzea zaila izaten denean partikularrentzat edo ikertzaile nahiz elkarte batzuentzat, landu beharreko ikerketen dimentsioak eta irismena direla-eta. Ataza zehatzak: T.3.1. Euskal gizarteak atzeritar jatorriko biztanleekiko dituen jarreraren Barometroa 2026 (VI. Planaren 4.3.9.1 ekintza). 2026ko Barometroaren urteko inkesta egingo da. Urte honetan lagina berriro ere 600 lagunekoa izango da. Emaiza nagusien aurkezpena urte amaierarako aurreikusten da. T.3.2. EAEko diskriminazioari buruzko pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkesta. Galdeketaen helburua da EAEko biztanleek aniztasunari eta haren adierazpen desberdinei buruz dituzten pertzepzioak eta jarrerak ezagutzea, eta orobat, hainbat arrazoiengatik izandako diskriminazioa neurtzea ere. T.3.3. Etxebizitza eta atzeritar jatorriko pertsonak Euskadin: etxebizitza eskuratzeari, eskariari eta bizitegi-bazterketari buruzko egiturazko diagnostikoa (4.3.6.1 ekintza). VI. Plana (4.1.4.12 Ekintza) erreferentziatzen hartuta, zenbait azterlan egiten hastea aurreikusten da, EAEko atzeritar jatorriko biztanleria

2026ko lan-plana eta eginkizunak	
Ataza	Atazaren deskribapena
T.3	ukitzen dituzten bizitoki-desberdintasunak sakon ulertzeko helburuarekin, diagnostikora bideratuta, politika publikoak prestatzeko oinarri gisa. Ildo horretatik, etxebizitzari buruzko eta atzerriar jatorriko biztanleek etxebizitza eskuratzeko duten aukerari buruzko lehen diagnostikoa egingo da, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak dituen datuak ustiatu eta aztertuta. Lehen txostena Koadernoak bildumako txosten berri gisa argitaratzea aurreikusten da. T.3.4. Osasun-datuak bilatzea eta ustiatzea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera (4.3.5.1 ekintza). Erreferentzia gisa VI. Plana (4.3.5.1 ekintza) hartuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako EAEOI inkestaren datuak ustiatzen jarraituko da, atzerriar jatorriko biztanleek euskal osasun-sisteman sartzeko dituzten desberdintasunak aztertzeko. Halaber, berreskuratzeko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekiko kontaktuak, datu espezifikoagoak lortzen saiatzeko. T.3.5. Hiruhileko panoramika informatiboak editatzea eta argitaratzea. Panoramikak txosten laburrak dira, gai espezifikoetarako buruzkoak, hainbat eremu eta fenomeno sakonago aztertzen dituztenak. Normalean, bigarren mailako datu ofizialen ustiapen estatistiko batean oinarritzen dira. 4 panoramika argitaratzea aurreikusten da. • Panoramika 99 (2026ko otsaila) • Panoramika 100 (2026ko maiatza) • Panoramika 101 (2026ko iraila) • Panoramika 102 (2026ko azaroa) T.3.6. Euskadiko komunitate musulmanaren beharrei buruzko diagnostikoa. ADOS Aholku Batzordearen 2023-2026 jarduketako programaren esparruan egindako ikerketa bat da. Ikerketaren planteamendua eta metodologia prestatzea, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuarekin eta Ellacuria Fundazioarekin lankidetzan, 2025ean egin zen. 2026an landa-lana egingo da eta txostena idatziko da. Txostena argitaratzeko da Zabaldu #4 bildumaren barruan. Bilduma horren helburua aniztasunari buruzko hausnarketa soziologikoa eskaintzea da, bere zentzurik zabalenean, analisia eta hausnarketa uztartuz. T.3.7. Euskadiko sare sozialei eta gorroto-delituei buruzko ikerketa. Lan honen bidez, 2026an, motibazio arrazista, islamofobia, lgtbi-fobikoa eta ijitoen aurkako gorrotozko diskurtsoak ikertu nahi dira, besteak beste, sare sozialetan.
T.4	Jarduera: HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA (sare sozialak, argitalpenak, webgunea) Ikuspegiren ikerketen emaitzak zabaltzea eta hausnarketarako foro eta guneetan parte hartzea dira Katedraren funtsezko beste jarduera bat. Izan ere, komunikabideei arreta emanez, Ikuspegik gizarte osoa sentibilizatzen laguntzen du, migrazio-fenomenoaren, dibertsitatearen eta tratu-berdintasunaren interpretazio soziologikoa eginez eta egungo testuingurua ulertzen lagunduz. Gainera, komunikabideetan zabaldutako informazioa behar bezala interpretatzen laguntzen du. Helburuak: • Web-orria mantentzea eta elikatzea. Ikuspegi Katedraren webgunea 2010ean berritu zen, eta 2026an aldaketak egiten jarraitzea aurreikusten da. Ikuspegik ahaleginak egiten jarraitu du, mapen atala osatzeko, eta taulak norberak prestatzeko atala ere bai, aukera hori eskaintzeko erabiltzaileei, eta dokumentu-funtsak eskuragarriago egiteko. Lehentasunezko helburua katedra sortu zeneko berbera da: atari egituratu propio bat eraikitzea, funtsezko funtzio hauek betetzeko baliagarria izango dena: - Harremanetarako baliagarria izatea lantaldearen, administrazio publikoaren, elkartearen, interes-taldearen eta, oro har, publikoaren artean.

2026ko lan-plana eta eginkizunak	
Ataza	Atazaren deskribapena
T.4	- Tresna gisa balio izatea, interesdunei emateko migrazioen esparruan interesgarria izan daitekeen guztiari buruzko informazio eguneratua: datu estatistikoak, informazio bibliografikoa, hemeroteka, informazio dokumentala, gertaerak eta jarduera interesgarriak. 2012ko otsailaz geroztik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak bere orria du Facebooken eta Twitterren, baita YouTubeko kanala ere. Bertan, Ikuspegik egiten duen lanari buruzko bideoak aurki daitezke. 2015etik LinkedInen ere badugu gure orrialde instituzionala, eta 2020tik Instagramen kontu bat dugu. 2025ean Bluesky sarean ere kontu bat ireki zen. Azkenik, 2022ko irailean hasitako sare sozialen mantentze eta elikadura zerbitzuarekin jarraitu nahi da, ulertzen baita gaur egun gehien erabiltzen den hedapen moduetako bat dela. Sare sozialak administratzeko lana kanpora aterata ere, haien mantentze-lanak aldaketa ekartzen du edukien sorkuntzan, alegia, infografiak sortzea, urtean zehar egun berezietarako materialak sortzea, argitaratutako materialak sare bakoitzaren formatura egokitzea, nobedade, argitalpen eta berrien arrastoari jarraitzea, eta halaber, komunikazio-estrategia eta urteko plangintza diseinatzea. Ataza zehatzak: T.4.1. Edukiak eguneratzea. Web-orrian jasotzen diren atalak eguneratuko dira: Eduki estatistikoak, hemeroteka-zerbitzuak, argitalpen propioak eguneratzea, berrikuntza bibliografikoak, kongresuak... T.4.2. Facebook, Twitter, LinkedIn, Instagram eta Bluesky eguneratzea eta mantentzea. T.4.3. Multimedia-edukiak eguneratzea eta mantentzea. Youtubeko kanala. T.4.4. Grafikoak sortu eta diseinatzea. 2026an, infografiak sortzeko eta diseinatzeko 2022an hasitako lanarekin jarraituko dugu, sareetan eta Ikuspegiren webgunean zabaltzeko. Oso tresna baliagarria da migrazio-fenomenoarekin lotutako daturik garrantzitsuenak modu argi eta zehatzean zabaltzeko.
T.5	Jarduera: GOGOETA ETA HEDAPENA Helburua: Ikuspegiren ikerketen emaitzak zabaltzea eta hausnarketarako foro eta guneeetan parte hartzea dira Katedraren funtsezko beste jarduera bat. Izan ere, komunikabideei arreta emanez, Ikuspegik gizarte osoa sentibilizatzen laguntzen du, migrazio-fenomenoaren, dibertsitatearen eta tratu-berdintasunaren interpretazio soziologikoa eginez eta egungo testuingurua ulertzen lagunduz. Gainera, komunikabideetan zabalduetako informazioa behar bezala interpretatzen laguntzen du, herritarrek sentibilizatzeko aniztasunaren garrantziaz, eta euskal gizartean bizikidetzaren positiboa sustatzeko. Ataza zehatzak: T.5.1. Komunikabideei arreta ematea eta irrati- eta telebista-programetan parte hartzea. T.5.2. Gizarte-erakundeek eta instituzioek antolatutako hitzaldi, ikastaro, jardunaldi eta foroetan aktiboki parte hartzea. T.5.3. Zurrumurruen aurkako Estrategiaren (ZAS!) lantaldean parte hartzea. T.5.4. Lehendakaritza gidatutako Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroan parte hartzea. T.5.5. Urteko jardunaldia. Ikuspegik, Biltzen-ekin batera, duela 15 urtetik egiten ari diren urteko jardunaldiak antolatzeari ekingo dio berriro.

MIGRAZIOEN ETA BIZIKIDETZAREN IKUSPEGI KATEDRAREN JARDUEREN KRONOGRAMA

		2026											
		ENERO	FEBRERO	MARZO	ABRIL	MAYO	JUNIO	JULIO	AGOSTO	SEPTIEMBRE	OCTUBRE	NOVIEMBRE	DICIEMBRE
	CONSULTAS, CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y DATOS												
INMCOON	CONSULTAS ESTADÍSTICAS												
INMCOON	CONSULTAS BIBLIOGRÁFICAS												
INMCOON	BOLETÍN DE NOVEDADES (4)												
INMCOON	ACTUALIZACIÓN DATOS ESTADÍSTICOS												
INMCOON	CONTENIDO REDES SOCIALES E INFOGRAFÍAS												
COON	INDICADORES DE DISCRIMINACIÓN												
INMCOON	SISTEMA INDICADORES TABLEAU												
	INVESTIGACIÓN BÁSICA												
INM	PANORÁMICAS (4)												
INM	BARÓMETRO INMIGRACIÓN 2026 (Acción 4.3.9.1.)												
COON	BARÓMETRO DISCRIMINACIÓN - EPADE 2026												
INMCOON	DISCURSOS DE ODIO EN REDES SOCIALES												
COON	DIAGNÓSTICO POBLACIÓN MUSULMANA - ADOS												
INM	CONDICIONES DE SALUD Y ACCESO (Acción 4.3.5.1.)												
INM	VIVIENDA E INMIGRACIÓN (Acción 4.3.6.1.)												
	JORNADAS Y CONGRESOS												
INM	JORNADA INMIGRACIÓN ANUAL												
INMCOON	CONGRESOS FES - BILBAO 2026												
	PARTICIPACIÓN EN REDES, MESAS, FOROS												
INM	Foro Multiagente de Transición Social y Agenda 2030												
COON	ENLIGHT												
INM	ZAS!												
INM	Consejo Asesor: Cátedra de Refugiados y Migrantes Forzados del Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones de la Universidad Pontificia Comillas												